



LIBURU GIDA

**Udan ere jantzi  
betaurreko moreak**

GUIA DE LIBROS

Con gafas moradas  
todo se ve más claro

## **SARRERA**

*Eskuen artean duzun liburu gida hau Kanpezuko Udal Liburutegia eta Arabako Mendialdeko Kuadrillako Berdintasun zerbitzua elkarlanean berdintasunaren inguruko irakurketa sustatzeko liburuen gida bat da.*

*Kanpezuko liburu gida honetan aipatu beharra dago Makaria Iriarte Atauri, ezinbestela.*

*Makaria Iriarte Atauri 1901. urtean jaio zen, Kanpezuko emakume jakintsua bezain garrantzitsua herrian eta zonaldean. Beste hainbat gauzen artean, irakurzalea eta berari esker hainbat herriko eta inguruko kontakizunak, istorioak eta pasadizoak umeei ahoz aho transmititzaia gustuko zuena.*

*Makaria Iriarte Atauri berari, eta beste hainbat emakume idazleei eta ilustratzaileei historian zehar egindako lana eskertu behar diegu. Batzuek garaiagatik haien lana “anonimo” bezala sinatu behar izan zutelako, besteak, ordez, ezizena erabiltzera behartuak sentitu zirelako, askok idazteagatik errepresalia bortitzak jasan zituztelako, ... haiei guztiei gure omenaldi xume hau.*

*Hori dela eta, gida honetan berdintasuna sustatzen duten liburuez aparte, emakume idazleen liburuak agertzea nahi izan dugu. Lehen aipatu bezala, emakume idazleen lana eta beraien ikusgarritasuna sustatzea beharrezkoa delako.*

*Gidaren egiturari dagokionez, euskarazko liburuen proposamenak eta gaztelaniazkoak egitura ezberdina dute. Euskarazko kasuan umeen literatura gehitu dugu; izan ere, umeen zein gazteen euskarazko irakurzaletasuna sustatu nahi dugu.*

*Liburu guzti hauek Kanpezuko Udal Liburutegian eska ditzazkezu. Bertan ez badaude Euskadiko liburutegi sarean eskuragarri egongo dira.*

*Gida hau formatu digitalean soilik sortua izan da, gizarte jasangarri batean edo bizi nahi badugu papera aurreztea eta ingurumenarekin bat egitea garrantzitsua delakoan gaude.*

*Horrelako gida bat egitea erronka handia izan da guretzat eta asko ikasi dugu prozesuan zehar. Horregatik, nahiko genuke zuretzat ere baliagarria izatea eta hemendik atera ditzakezun liburuak irakurriz disfrutatzea.*

*Akatsak izango ditu bai, beti zabalik gaude zuzenketetarako edo zuen ekarpen eraikitzaileetarako, guretzat ikasten jarraitzeko lagungarria izango baita.*

*Amaitzen joateko, eskerrak eman nahi dizkiogu Bego Etayo Ereña "La hora violeta" Arabako Mendialdeko irakurketa klub feministako dinamizatzaileari eta Ainhoa Aldazabal Gallastegi Arabako Mendialdeko euskarazko irakurketa klub feministako dinamizatzaileari, liburu-gida hau osatzeko bidean emandako laguntzagatik.*

*Amaitzeko, Kanpezuko Udal Liburutegiko udako ordutegia doakizue:*

- Astelehena-asteazkena- ostirala: 17:00-19:00      Asteartea- osteguna: 11:30-13:30*

*Milesker eta zuen gustukoa izatea espero dugu.*

*Santikurutze Kanpezu, 2021eko uztailaren 8an*

## INTRODUCCIÓN

*Esta guía que tienes entre manos ha sido elaborada en un trabajo conjunto llevado a cabo desde la Biblioteca Municipal de Campezo y el Servicio de Igualdad de la Cuadrilla de Montaña Alavesa con el objetivo de fomentar la lectura en torno a la igualdad.*

*En esta guía de libros elaborada en Campezo vemos imprescindible mencionar a Macaria Iriarte Atauri.*

*Macaria Iriarte Atauri nació en 1901, mujer Campezana tan sabia como importante en el pueblo y en la zona. Entre otras cosas, con gran afición a la lectura y gracias a ella y a su implicación transmitió de boca en boca relatos, historias y anécdotas de diferentes pueblos y alrededores.*

*Debemos agradecer a la propia Macaria Iriarte Atauri, y a otras escritoras e ilustradoras su labor realizada a lo largo de la historia. Aquellas, que debido a la época tuvieron que firmar su trabajo como "anónimo", aquellas que se vieron obligadas a utilizar un apodo, aquellas que sufrieron fuertes represalias por escribir, ..., a todas ellas, nuestro más sincero homenaje.*

*Por ello, hemos querido que, en esta guía, aunque sobretodo se proponen libros que promueven la igualdad, presentar también libros de mujeres escritoras. Como ha sido mencionado anteriormente es necesario dar visibilidad a todo el trabajo que realizan.*

*En cuanto a la estructura de la guía, la propuesta de libros en euskera y la de castellano tienen una estructura diferente. En el caso del euskera hemos añadido la literatura infantil, ya que se quiere fomentar la lectura en euskera de público infantil y joven.*

*Todos los libros que aquí aparecen, los puedes solicitar en la Biblioteca Municipal de Campezo. Y si éstos no se encuentran en la Biblioteca, pueden ser solicitados a través de la Red de Bibliotecas de Euskadi.*

*Por otra parte, comentar que esta guía ha sido creada únicamente en formato digital, porque creemos que si queremos vivir en una sociedad sostenible es importante ahorrar papel.*

*La elaboración de una guía de estas características ha supuesto un gran reto para nosotras y hemos aprendido mucho a lo largo del proceso. Por eso, nos gustaría que también fuera útil para ti y disfrutaras leyendo los libros que puedes sacar de aquí.*

*Tendrá defectos sí, siempre estamos abiertas a vuestras aportaciones constructivas, porque para nosotras será una ayuda para seguir aprendiendo.*

*Para ir finalizando, agradecer a Bego Etayo Ereña dinamizadora del Club de Lectura Feminista de la Montaña Alavesa "La hora violeta" y Ainhoa Aldazabal Gallastegi, dinamizadora del Club de Lectura Feminista en euskera de la Montaña Alavesa, por su colaboración en la elaboración de esta guía de libros.*

*Por último, el horario de verano de la biblioteca de Kanpezu es el siguiente:*

- Lunes-Miércoles-Viernes: 17.00-19.00*
- Martes- jueves: 11.30-13.30*

*Milesker y Esperamos que sea de vuestro agrado,*

*En Kanpezu a 08 de julio de 2021*

## **AURKIBIDEA:**

### **EUSKARAZKO LIBURUAK / LIBROS EN EUSKERA :**

[Eleberri soziala](#)

[Eleberri istorikoa](#)

[Eleberri beltza](#)

[Gerra-eleberria](#)

[Feminismo eta literatura](#)

[Biografia](#)

[Tratu txarrak](#)

[Feminismo](#)

[Ensaio](#)

[Rol sexuala](#)

[Erlazioak](#)

[Olerkia](#)

[Transexualitatea](#)

[Antzerkia](#)

[Kontakizun laburrak](#)

[Komikiak](#)

### **UMEENTZAKO LIBURUAK / LIBROS PARA NIÑAS Y NIÑOS:**

[12 URTETIK GORA / DE 12 AÑOS EN ADELANTE:](#)

[8 URTETIK GORA/ DE 8 AÑOS EN ADELANTE:](#)

[5 URTETIK GORA / DE 5 AÑOS EN ADELANTE:](#)

### **GAZTELANIAZKO LIBURUAK / LIBROS EN CASTELLANO:**

[Desigualdad](#)

[Clásicos-Ensayos](#)

[Historicos](#)

[Violencia Machista](#)

[Amor romántico](#)

[Maternidad](#)

[Prostitución](#)

[Transexualidad-Queer-LGTBIQ+](#)

[Biografias](#)

[Otras culturas](#)

# EUSKARAZKO LIBURUAK

## LIBROS EN EUSKERA

## ELEBERRI SOZIALA:




### **BIDEAN IKASIA**

Arantza Urretabizkaia Bejarano

Gaia: Irungo eta Hondarribiko alardeak


Inor gutxi izango du kalean ahoz gora iraindua izateko ohitura. Inor gutxi dago horretarako prestatua. Irainzaileak ere ez du seguru asko ohitura hori, baina ekintzek frogatzen dute hobekiago egokitzen dela irainzailea egoera berrira, berak sortua delako egoera hori, berak aukeratu duelako ekintza.



### **ESNEAREN KOLOREKOA**

Nell Leyshon


1830eko Ingalaterran, Maryk, ernegazio zaharrak trenputxartu duen baserritar baten alaba gazteenak, esnearen kolorekoa du ilea, eta jaiotzez akasduna hanka bat. Aitonaren ondoan sendatzen ditu Maryk, tarteka, lanez eta errietaz gainezkako bizimoduaren zauriak. Halako batean, ordea, bikarioaren emazte elbarritua zaintzera bidaltzen du aitak, eta bizimodu berri horretan ezagutuko ditu Maryk bizitzaren hainbat alderdi berri. Eta berrikuntza guztietan buru, han ikasiko du irakurtzen eta idazten.



## BI ALDIZ ERDITU ZINEN NITAZ AMA

Alaine Aguirre Garmendia

Gauza asko da batean nobela hau: egileak bere amari eskainitako maitasun-kanta luze bat; familia osoaren historia eta istorio sorta txirikordatu bat; gaixotasun baten etorkiaren bila haurtzaroko oroitzapenetan barrena egindako introspekzio ariketa bat; ama izan ezin eta ahal eta nahi izatearen edo ez izatearen inguruko gogoeta zalantzako, sigi-sagatsu bat.



## X HIL DA

Alaine Agirre Garmendia

Gaia: Galera. Bizitza.

Hainbat arrazoi izan ditzake maitearen galerak: haren heriotza, ihesa, asperdura, traizioa bakoitza desberdina baina denak izugarriak bakarrik geratzen den maitalearentzat. Herio eta galbide bakoitzaren atze-aurre guztiak xeheki aztertzen ditu nobela honetako protagonista eta narratzaileak, intentsitate harrigarria lortzen duten pasarteetan, ikara berberak behin eta berriz exorzizatuz, obsesio baten bulkada eutsiezinaz. Idazle iaio baten sena erakusten du Alaine Agirrek bere bigarren eleberri honetan, kontakizunaren erritmoa eta hizkuntzaren edertasuna trebezia handiz uztartzen baititu gai beraren inguruko bariazio hauek lantzean.




## BESTE NORBAITEN ZAPATAK

Garazi Kamio Anduaga

Gaia: Eguneroko pasadizoak

Lankide baten amaren hilbeilak egonezinik uzten duen gizona, giza harremanak matematika- ekuazioen arabera ikusten dituen bikotea, autobusean bidaia luze bat egin behar duen lagun pareak, alaba gaixoa ospitalera eraman behar izan duen ama, bizilagunari mandatu bitxi bat eskatzen dion agurea, 30 urte lehenagoko ikasle garaiko pasadizoak aztoratzen duen gurasoa...



## GAU LANA

Rosa Arburua Goienetxe

Gaia: Bidasoako mugalariak


Euskal Herria lurralde txikia izanik, geografikoki eta ekonomikoki guztiz estrategikoa izan da. Horregatik, sarritan gertatu da banaturik mugak ezarrita. Jada, erromatarrek beren Inperioaren garaian, administratiboki bi eremutan banatu zuten Euskal Herria. 1659an sinatu zen Pirinioetako Bakea eta orduan ezarri zen, besteak beste, Espainia eta Frantzia arteko muga geografikoa. Bestalde, dirua lortzeko, agintariek beti jarri izan dizkiote zergak merkataritzari. Hala, esate baterako, XIII. mendean zehar Nafarroatik atzerrirantz ateratzen ziren produktuak Tolosa-Donostia-Baiona edo Belate-Bidasoa-Hondarribia bideari ekiten zioten. Bide horietan aduanak zeuden, eta zergak ordaindu behar izaten ziren bertatik pasatzen zen merkataritza legala izango bazen. Mendez mende gainditu izan dira, ordea, muga horiek aduanak saihestuz Euskal Herrian. Debekatuta zeuden produktuak alde batetik bestera pasaz edota zergak ordaindu gabe, euskaldunentzat kontrabandoa errekurtsio ekonomikoa bihurtu zen. Kontrabandoaren fenomeno oso zabalduta egon da Euskal Herrian eta fenomeno horren inguruan era askotako egoerak sortu dira, gizon-emakume askoren parte hartzearekin. Rosa Arburuak bi zati nagusi osatu ditu. Lehenean, alderdi historikoa ikertu du; bigarrean, protagonisten lekukotasunak bilduz abentura humanoaren erreportaje literarioa osatu du.



## BERE AITAREN ALABA

Anne Berest

Hiru ahizpa dira eleberri honetan protagonista. Bizitzak banatu egin ditu, baina gaur aitaren etxean bildu dira urtebetetze bazkari baten kariaz. Oroitzapenak sortzen dira haurtzaroko beren etxera itzuli direnean. Keinu urduriak, mingainean trabatzen diren hitzak, mahaiaren inguruan esertzera lehiatzen diren haserreak... Ohikoak izaten dira halako elkarganatzeean. Postre garaian, berriz, luze ernemuindutako bonba lehertu da: komentario zaurigarri baten ondoren, familiako sekretu bat agerian geratzen da, eta hiru ahizpen bizitza ez da aurrerantzean bera izango, ez da bera izango aitarekin daukaten harremana ezta gazterik hil zen amarengandik gordetzen duten oroitzapena ere.




## ERABILI GOLDEA HILEN HEZURREN GAINETIK

Olga Tokarczuk

Gaia: Eleberri beltza

Janina Duszejko basoalde bakarti batean bizi den emakume adintsua da, zubi-ingeniari erretiratu eta umeei ingeles-eskolak ematen dizkiena; William Blakeren poemak, Astrologia eta izaki bizidun guztiak maite ditu, eta animaliak hiltzen dituzten ehiztariak gorroto. Eta hain zuzen, ehiztari zenbait hilik hasi dira agertzen alderdi menditsu horretan.



### **AZKEN PATRIARKA**

Najat El Hachmi

Gaia: Patriarkatua, kultur aniztasuna

Azken patriarka eleberriak Marokotik Kataluñara emigratu duen Mimoun Driouchen istorioa kontatzen digu, bere alabaren begietatik. Haren eskutik aitaren izaera tormentatua ezagutuko dugu; bere izaera autoritario eta zaharkituak sortarazten dizkion talka etengabeak.




### **AITAREN ETXEA**

Karmele Jaio Eiguren

Gaia: zaintza lanak

Blokeatuta dago Ismael, bere nobela berriarekin aurrera egin ezinik, argitaletxetik deika eta epea gogoratzen ari zaizkion arren. Gauzak okertu egingo dira, gainera, bere amak istripu bat izan duela-eta, aita zaharraz arduratu behar duenean.




## **ODOLEKOAK**

Aintxine Mendizabal Aranburu

Gaia: historikoa, emakumeen ikusgarritasuna

1941ean hasi eta oraintsu arte, Iruñeko familia baten historia kontatzen digu nobelak, hiru belaunalditan zehar, hiru emakumeren bitartez: Matilde, Teresa eta Amaia, nor bere ama bilatzen eta ukatzen duten hiru matrioxka.



## **DENDAOSTEKOAK**

Uxue Alberdi Estibaritz

Gaia: Bi ahizpen autobiografia

Jostuna bata, brodatzailea bestea. 70eko hamarkada bukaeran ireki zuten denda, gurasoen etxean lan egiteaz nekatuta, eta liburu politikoak eta diskoak gehitu zizkieten ordura arte erabilitako kakorratz, makina eta hariei.



### **ENE BAITAN BIZI DA**

Maddi Ane Txoperena Iribarren

Gaia: Ama-biloben harremanak

Aitari zer bait entzunik, amatxiren bizipenen gibeletik abiatzen da Marie, Donibane Lohizuneko gaztea, Parisko ikasketak bururatzeko egin behar duen azken memoria lanerako. Ez zaio erraza suertatuko ordea, amatxik ez baitio nahi duen emanen, eta Mariek berak ez baitio nahi duena emanen, eta Mariek berak ere ez baitaki zeren bila dabilen, xuxen...




### **KRISTALEZKO BEGI BAT**

Miren Agur Meabe Plaza

Gaia: Jabekuntza, nahiak

Emakume baten mintzoa adituko duzu liburua zabaltzeaz batera: begi bat galdu nuen nerabezaroan; minbiziaz hil zitzaidan ama; dibortziatua naiz eta seme bat daukat; lantokian kontua eskatu nuen iaz, orain enkarguzko lanak idaztetik ateratzen dut bizibidea; berriki utzi egin dut maite-laguna eta harrezkero gaixotuta...".



## ERREKA HAIZEA

Sonia González Fernández

Gaia: Ametsen mundua uztartu

Egunerokotasuneko bizipenetatik abiatu da Sonia González liburu honetan, munduaren gaineko ikuspegi kritikoa emateko. Bizitzaren arrakalak disezcionatu ditu, eta zirrikietan ezkutatzen diren sakoneko desberdintasunak, minak, ezin esanak azaleratu. Baina baita indarra ere, isiltasun behartuari hitzarekin erantzuteak ematen duen indarra.



## JENISJOPLIN

Uxue Alberdi Estibaritz

Baldintza makurrei aurre eginez zaildutakoa da Nagore Vargas, gaztaroa intentsitate handiz bizi izan dutenen grinarekin borrokatzera ohitua: autoritatearen kontra, benetakotasunaren bila, desafioek inarrosirik, barne bulkadaz, presaka maitatzen, bortizkeriari artez begira, arriskuari deika, edozertarako prest. Bilbora iritsi zenean hiri bat gatazkan zeukan deskubritzeko; zenbait iraultza eta abentura, engaiatzeko; gorputz bat, biolentziaren eta erotikaren artean jokoan jartzeko. Klasearen, aberriaren eta sexuaren izenean nork bere amorrua bizkortzen zuen garaiak gozatu zituen Nagorek. Baina orain, 2010eko irailean, 28 urte dituela, Artxandan dago Libre irratiko hiru lagunekin, azken bilkura moduko bat antolatu dute, jakinaren gainean segika dituztela txakurrak, preso hartuko dituztela ziurrenik eta itxi egingo dutela irratia.



## MARI- MUTIL HANDI BATEN BLUESA

Leslie Feinberg

Utzi nion ikus zitzala nire beldurra eta nire lotsa, gizon bati nahita inoiz utzi ez nion bezala. Baiezko keinua egin zidan. Ulertu zuen. Duffy bultzaka joan zen hesiraino, laneko bota goratu, eta hesia ostikoz irauli zuen. Goazen - egin zien keinu grebalariei. Poliziak ustekabean harrapatu genituen trumilka gainditu genituenean. Borrokak izan ziren, baina gutako gehienak polizia furgonetaraino iritsi, eta inguratu genuen.



## **NEGUKO ARGIA**

Irati Elorrieta Agirre

Eszena eta ahots franko zelatatzen ditu eleberriak, erritmo azkarreko film baten gisan. Añesen eta Martaren ibilbideak zeharkatzen dituzten hainbat pertsonaia badatoz eta badoaz, leihoetan piztu eta itzaltzen diren argiak bezala, irristan. Porrotari, erresistentziari, ihesari edota berriz zerotik hasi beharri buruzko kontakizunak harilkatuz, leku eta denbora ezberdinetako eszenak proiektatzen dira gizatalde solte baten barne munduan.

## ELEBERRI HISTORIKOA:




### ZERUA GAINBEHERA DATOR

Lorenza Mazzetti

Bigarren Mundu Gerrako azken urteetan, bi ahizpa umezurtz, Penny eta Baby, zorionean bizi dira Toscanako herri batean, jatorriz juduak diren beren osaba-izebekin, zeinek beren etxean hartuak baituzte bi haurrak, haien gurasoak hildakoan.

## ELEBERRIA (ZIENTZIA FIKZIOA) :



### BIHOTZEAN DARAMAGUN MUNDUA


Maite Darceles Tife

Gaia: Distopia

Atzean utzi du XXI. mendeak lehenbiziko erdia. Teknologiai erraztu bide du bizitza. Erraztu eta baretu. Gizarteak ikasi ditu pertsona guztien eta bakoitzaren zorionerako joera desbideratuak saihestearen onurak. Horretarako, jakina, joera horiek garaiz antzematea da urratsik funtsezkoena. Nahiz ez bakarra. Eta ezer ere ez dago printzipio horren gainetik. Loreak argi ikusten du norantz doan mundua, nora doan gizartea: aurrera, etengabeko progresioan, gero eta zorion beteago baterantz, perfekzio gero eta borobilagoa helburu. Eta perfekziorako bidaian, astunegi gertatu ohi da oroimenaren zama, garai bateko (gaurko?) ametsen karga... Baina gaztetasunak berezkoa du jakin-mina, eta "Y andrea" izengoitikoaren eskutik asetuko du Loreak berea. Eta jakin-minetik ekintzarako urratsa egitea planteatu beharko dio bere buruari, Sistemak anestesiatua nahi lukeen ikuspegi kritikoa bere baitan piztearekin batera. Maite Darcelesek planteatzen digun distopia honetan, gaurko irakurlea eta bere mundua gara benetako gogoetagaiak. Ez

baitirudi bihotzean daramagun mundua izango denik etorkizunetik epaituko gaituena.

## ELEBERRIA (BELTZA):



### FRANKESTEIN

Mary Shelley

Istorioko protagonistaren nagusia, Victor Frankenstein da, Ingalaterran medikuntza ikasten ari den ikasle suitzar bat. Bere nahia, elektrizitatearen bidez, bizia sortzea da. Honegatik, hildako pertsonen gorputz atal ezberdinak batzen ditu. Eta, honela, gorputz berri bat sortzen du. Bere ustetan, elektrizitatea baino ez da falta, gorputz berri horri bizia emateko. Halako batean, bere laborategiaren kanpoaldean, tximista bat erortzen da. Eta, tximista horren elektrizitatea, Victorrek asmatu izaki berria dagoen ohexkarantz zuzentzen da. Handik gutxira, berak asmatu izakia, ohexkatik altxatzen da. Izaki hau, istorio osoan inongo izenik ez duena, laborategitik irteten da, beste gizaki batzuekin harremanak izateko asmoz. Baina, jende guztiak, bera ikustean, bereganako mespretxua eta onarpen eza erakusten dio. Arrazoi honegatik, Victorri, neskalagun bat sortzeko eskatzen dio. Eta honek, onartu egiten du. Berak sortutako izakiak, ez dio Victorri begirik kentzen, prozesu guzti hortan. Baina, bere kontzientziak zigorturik, Victorrek, bere izakiaren neskalaguna desegitea erabakitzen du, azken honi bizia eman aurretik. Eta, honela, halako batean, izakiak, Victorren neskalaguna akabatzea erabakitzen du. Baita honen lagunik onena eta beste hainbat senide ere. Honen ondorioz, Victorrek, bere izakia azken muturreraino jarraitzea erabakitzen du, eta Artikoko izotzetan hartzen duen itsasontzi

batean hiltzen da Victor. Ondoren, honen izakiak hartzen du itsasontzia, eta hauxe esaten dio kapitainari:

## GERRA-ELEBERRIA:



### HAN EZ BANENGO BEZALA

Sharrenka Drakulic

1992. urtean girotuta dago, Bosniako gerraren aldirik latzenean, eta gerraren alderdirik izugarrienetako bat erakusten du: emakumeen aurkako bortizkeria. S.-ren ahots indartsuaren oihartzuna ez da aise isilduko irakurlearen buru-zokoan. Suediako erbestetik ari zaigu, gordin baina sotil, apaingarririk batere gabe.

## FEMINISMO ETA LITERATURA:



### IDAZLEEN GORPUTZAK

Eider Rodriguez Martín

Gaia: Emakumeak eta literatura.

Eider Rodriguez idazleak, literaturaren inguruko hausnarketa eta kritika ez ezik, emakumeek literaturan duten tokiaren inguruko datuak eta emakume idazleen ahotsak dakartza.



### BERDEA DA MORE BERRIA

Onintza Irureta Azkue

Gaia: Zaintza

2016ko martxoan hasi zen dena. Ia bi urtez luzatuko zen borroka, 378 egun greban. Bizkaiko zaharren egoitzetako langileak kokoteraino zeuden. Ia langile guztiak emakumeak ziren, zaintza lanak egiten dituzten gerokultoreak, lan baldintza kaskarretan. Ustekaberik ez, zaintza beti bezala emakumeen ardurapean, ordainik gabe edo gaizki ordainduta. Bosgarren hitzarmena sinatzea garaipena izan zen, baina borroka hark lan baldintzak hobetzea baino dezentez gehiago lortu zuen: emakumeak ahaldu ziren, zaintza erdigunean jarri zuten, gizartea sentsibilizatzea lortu zuten, eta beste sektore feminizatu prekarioentzat eredu eta hauspo izaten ari da.

## BIOGRAFIA:



### KONTRAKO EZTARRITIK

Uxue Alberdi Estibaritz

Gaia: Emakumeak eta bertsolaritza

Emakume mordoak omen dihardu bertsolaritzan. Hori entzuten dugu behin eta berriro, baina datuak eta pertzepzioak ez datoz bat. Guk badakigu emakumeen ikusgarritasuna gizonezkoen desiraren neurrira eginga dela, eta, Alberdik bikain argitzen duen moduan, gizon publikoaren osagarri rola betetzen duen bitartean, emakumea (singularrean) onartua da gizonen espazioetan, baina gizonenak dira espazio publikoak.




### 1362 KM EURI

Goizalde Landabaso Etcheverry

Gaia: Emakumeen istorioak

Uztailetik uztaileira, euria. Gutunetik gutunera, epela. Garazi Goia eta Goizalde Landabasoren arteko gutun trukaketak urtebete eman du euriari bizkar eman guran. Ezin ordea. Teknologiaren modernismoa, denbora gabezia eta gramatika akatsez betetako mezuak gailentzen diren garaiotan, benetako eskutitzak idazten dizkiote elkarri.



## **EMAKUMEAK**

Eduardo Galeano

Eduardo Galeano desjabetuen historiaren kontalaritzat har daiteke. Oraingoan, izenburuak dioen bezala, bi aldiz ezabatutako horien ahotsa dakar, emakumeak baitira kontakizun bilduma honen muin eta bizkarrezurra.

## TRATU TXARRAK - SEXU DELITUAK:



### ONDO MAITE NAZAZU

Rosalind B. Penfold

*Ondo maite nazazu* Tratu txarreko istorio bat Istorio gogorra, tratu txarren istorio oro bezala, baina ezagutu eta zabaldu beharrekoa.



### NIK SINESTEN DIZUT

Samara Velte Moran

2016ko sanferminak hasi berritan, bost gizon atxilotu zituzten Iruñean, denen artean neska bat bortxatzea leporatuta. Aurki, kasuak ohiko dimentsio guztiak gaituzten zituen: inor gutxi geratuko zen sanferminetan jazo zen gertakizun lazarri haren berri jakin gabe, azken hamarkadako mobilizazio handienetako batzuk eragiteraino. Baina zerk bihurtu zuen nahiko ohikoa den gertakari bat – festagune batean gertatutako eraso sexista bat—horren ikoniko? Nik sinesten dizut ez da 2016ko sanferminetan gertatutako taldeko bortxaketari buruzko kronika liburu soil bat. Ikuspegi kritiko batetik aztertzen du auzia, eta agerian uzten du nola gurutzatzen diren indarkeria sexistaren hainbat forma kasu bakar batean: biolentzia fisikoaz harago, nola osatzen duten eraso epaiketan ateratako argudio sexistek eta paraleloan zabalduetako epaiketa mediatiko eta sozialak. Liburu honen helburua da bortxaketaren kultura deitzen zaion hori aletzea, ulertzea eta deszifratzea; hain zuzen ere, kultura hori aldatzeko.



## KING KONG TEORIA

Virginie Despentes

Despentes puta, Despentes proletarioa, Despentes punka, heteroaraudiaren bazterbideetatik abiatu, eta haren muinera heltzen da. Patriarkatu kapitalistaren kanpoko zirkulu marjinaletan dabilelarik, zirimola estutuz-estutuz joan, eta hara non begi-begiraino iristen den: XIX. mendean politikoki inposatzen diren genero-ereduen kontrako piztia da King Kong, generoen aurreko kaosa. Ez alferrik, feminitatea hipokrisia hutsa da Despentesentzat, otzan zuria izateko artea, emakumeen neurrira eginiko presondegi bat, eta neurriz kanpoko emakume munstroak sortzen ditu, behar ez bezalakoak, beti zerbaitegi: santuegiak edo putegiak, lodiegiak edo argalegiak, erlegegiak edo argiegiak... horiexek feminitatearen -egiak.

## FEMINISMOA (ENSAYO):




### GUZTIOK IZAN BEHARKO GENUKE FEMINISTA

Chimamanda Ngozi Adichie

Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren Guztiok izan beharko genuke feminista saiakera euskaraz argitaratu du Hik Hasik. Lana Euskal Herriko ikastetxe denetara zabalduko dute. Ngozi Adichie idazle nigeriarrak badaki feminista hitzak konnotazio negatiboak dituela, eta era berean oso argi du guztiok izan beharko genukeela feminista, emakumeen eta gizonen arteko eskubide berdintasuna jokoan dagoelako. Saiakera labur honetan, feminista zergatik izan beharko genukeen argudioak ematen ditu. Horretarako adibide asko jartzen ditu, hasi bera haurra zenekoak eta gaur egun berari eta bere inguruko emakumeei gertatzen zaizkienak. Esate baterako, umetan ikasgelako notarik onena aterako zuenak ikasgelako begiralea izateko aukera izango zuen. Ngozik atera zuen notarik onena, baina irakasleak esan zion begiraleak mutila behar zuela izan, ez neska. Gaur egun bestelakoak gertatzen zaizkio, adibidez, Nigeriako jatetxeetan gizonekin sartzen den bakoitzean zerbitzariak gizona agurtzen du eta, emakumea ez. Adibidez adibide Nigerian emakumea izatea zer den azaltzen doa, nola bizi duten egunero, xehetasun txikienetan ere, diskriminazioa. Europako ikuspegitik begiratuta, hainbat egoera eta gertaera gaituztat dauzkagula irudituko zaigu, baina zoritxarrez beste hainbat adibide oso ezagunak egingo zaizkigu.

## ROL SEXUAL-SEXU NORTASUNA:



### GENERO NAHASMENDUA

Judith Butler

Emea izatea egitate 'natural' bat ote da? Ala antzezpen kultural bat da? 'Naturaltasuna' bera ere ez ote da eraikia? Eta, genero bitasuna? Sexua, generoa, desira ez ote dira boterearen eraikuntza soziopolitikoak? Ez ote gara heterozuentasun diskurtso eta ekintza performatiboen etengabeko errepikapenaren bitartez ekoiztako gorputzak? Gorputzaren, sexuaren, generoaren eta desiraren kategoria fundazionalak ez ote dira boterearen eraketa espezifiko baten emaitza? Araitik kanpoko sexu jarduerak ez al gaituzte behartzen "zer da gizon bat, zer emakume bat" geure buruari galdetzera? Horra Judith Butler filosofoak gogoeta gai dituen hainbat auzi. Genero nahasmendua saiakeran, zer da sexua zer gorputza zer generoa zer desira eta nork eta nondik eraiki, ekoiztu eta arautzen dituen ikertu du. Feminismoaren baitatik bertatik jarrera kritiko eta eraikitzailez, identitatearen subertsioa proposatzen du bazer sexualetan bizi diren edo bizitzen saiatzen direnek aukera izan dezaten bizitza bizigarria izateko.

## ERLAZIOAK:




### **BASA**

Miren Amuriza Plaza

Zaharra da Altzerreka, erreka-bazter ainube batean dagoen baserria. Zaharra bertako seme Henry, urte luzez Ameriketako artzain ibilia, zangoa anputatu ziotenez geroztik ohean datzan. Zaharra da Sabina Gojenola ere, koinatu elbarria eta etxaldea egoskorkeriaz gobernatzen dituen alarguna.

## OLERKIA:




### **ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA**

Mari Luz Esteban Galarza

Gaia: Zahartzaroa


Manifestu bat da esanguraz bete nahi den aldarri bat gai, arlo, eremu batean non esanahiak kerratuz doazen eta errealitate berriak isilik ere garrasika hasten diren manifestu bat da zure garaiaren eta zure gizartearen Arrazoiaren aurka idaztea leiho bat zabaltzea etorkizunera.



## **ETA ORAIN BADAKIT**

Tere Irastortza Garmendia

Eta orain badakit Eta orain Badakit zorientasunaz bakarrik idazten dugula harrez gerokoan eta badakit 2+2 zer den eta badakit ezberdina dela ile motzaz ala ile luzeaz iturri azpian jarri eta ilea garbitzea ilea busti hutsarekin, ala sakatsak askatuz garbitzea, eta ile apaindegian zintzurra okertzeko beldurrez ala buruz behera garbitzea burua, eta negar ezkutuan egitea ala jaioberriaren inozentziarekin negar egitea. Eta orain, 2+2 nolabaiteko jakintza dela dakidan arren, hala ere, orain badakit, ondo dakit, bion artean, edozein gauza idazten dugula idazten dugula zorientasuna dakigulako idazten dugula eta idazten dugula zorientasuna.



## **ITSASO KONTRA BAT**

Karmele Igartua Bengoa

Itsaso kontra bat honek sen berberaz erakusten ditu bizitzaren eta amodioaren indarra, eta herio-minak sortutako egonezina. Eta bizitzaren eta herioaren orbainak gozatzeko ahaleginean, sen berberaz bilatzen du sosegua, alegia, edertasunean oreka, liburuan babesa, edo finean, Itsaso kontra bat.



### **ETXEKO URAK**

Leire Bilbao Barruetabeña

Urak botaz hasten da Leire Bilbaoren poema bilduma berria, eta listua eta hizkuntza datoz gero, kolektibotasunaren marea, eta harraskako urak. Amatasunari buruzko liburu bat bainoago, amatasunetik idatzitako liburu bat.



### **NOLA GORDE ERRAUTSA KOLKOAN**

Miren Agur Meabe Plaza

Izenburu alegoriko bezain ironikoa dauka Miren Agur Meaberen poesia liburu berriak, zeinetan azken hamarkadan idatzitako poemak biltzen dituen. Bizitzaren joanean, kolkoa zera bihurtu zaigu, iraganaren errautsak gordetzeko urna moduko bat. Baina ez da erraza errautsa aldean erabiltzea begietan azkurarik igarri, azala zikindu edota eztulik egin gabe.




## **EZ DA ERDITZEA**

Ione Gorostarzu Etxebeste

Gaia: Amatasuna

Amatasuna gai zentralizat hartzen duen poema-bilduma: ama bihurtu aurreko emearen sentipena; haurdun bihurtzeak sortzen dituen larritasunak, pozak eta beldurrak; ama bilakatzearen sentimendu kontraesankorrak, maitasun eta ukazioen koktelaz; norbere amarekiko alaba izateak dakartzan buruhausteak? Gorputzaren presentzia eta sentsazioak oso nabarmenak diren 61 poema, erritmoz beteak, ama izan zein ez izan, esperientzia horren aberastasun ñabar guztia indarrez transmititzen dutenak eta enpatia pizten dutenak.




## **ARO BEILEGIA**

Lizar Begoña Madariaga

Gaia: Kritika politiko-soziala


Inklinazio-mendekoa. Olerkiak



## EMAKUME BURUGABEA

Antxiñe Mendizabal Aranburu

Hitzez eta irudiz eraikitako poema ilustratu hau askatasun eta maitasun kantu bat da, eta aldi berean biziberritze baten metafora. Ipuin batean bezala kontatzen du bere gorputzetik arrotzia izan den emakume baten ausardia, amildegiaren ertzeraino joanda, bere buruaz erditu eta bizialdi berri batera jaiotzeko. Izan ere, emakumeak bere buruaz gabetu beharko du, gorputzean bizitzen hasteko? etxera itzultzeko.




## HIRU EMAKUME

Sylvia Plath

Sylvia Plath zuzen-zuzen iristen da bihotzeraino, beti. Amatasunaren inguruan ardaztutako poema hunkigarria duzu hauxe, hiru ahots ezberdinen bidez hezurmamitua. Amatasuna bizitzeko modu bana ordezkaten du ahots bakoitzak: ama izanda betetasuna erdietsiko duela uste du bata, ama izan ezinaren mina pairatzen bigarrenak, eta ama izan nahi ez arren, erditzea erabakitzen du.


## TRANSEXUALITATEA:



### MOIO GORDETZEA EZINEZKOA ZEN

Kattalin Miner Pérez

Zein da neurri ona gertakari batetik distantzia hartu ahal izateko, baina oraindik gertakariak fresko mantentzen direla ziurtatzeko? Noiz igarotzen da ‘gertatu berria den zerbait’, ‘gertatu zen hura’ izatera? Eta, beraz, noiz hitz egin ‘gertatu zen hartaz’?”. Halakoak galdetzen dizkio Kattalin Minerrek bere buruari liburuaren atarian, hamar urte lehenago hil zen Aimar Elozegi Ansa “Moio” bere lagun minaz oroitzean. Suizidioa eta transexualitatea, gure gizartea durduzatzen duten bi tabu elkartu ziren heriotza horretan. Bere garaian zirrarez eta hunkiduraz beteriko erantzuna izan zen Hernaniko herrian, lagunarenganako maitasunaz gainera transexualitatearekiko enpatia eta jarrera berri baten beharra aldarrikatu zituena. Urteak igaro ahala, ordea, zer geratu da? Ez ote da maila intimora igaro dimentsio publiko eta politikoa erdietsi zituen kasua? Hipotesi horretatik abiatuta, hainbat elkarrizketa egin ditu Minerrek: Moioaren kuadrillako lagunekin, haren anaiarekin, Medeak taldeko feministekin, omenaldian bertso gogoagarriak kantatu zituen Maialen Lujanbiorekin, Moioaren azken gutuna argitaratu zuen Iratxe Retolazarekin, Brayan Altimasbere hernaniar trans gaztearekin... Guztien artean Aimarren bizitza eta heriotzaren erretratu eta memoria osatzeaz gain, pertsona transexualek gainditu beharreko oztopo ikusgarri zein ikusezinak marrazten dira, gure gizartearen transfobia aitortu zein aitortu gabeak, azken batean. Erreportaje bizi, zintzo eta sakona eskaintzen zaigu, hortaz, guztioi zer pentsatua eman beharko ligukeena.




## NESKAK ETA MUTILAK

Aingeru Mayor Martinez

Ez daude mutilen gauzak, ezta nesken gauzak ere" Candela, 8 urte. Munduan neska eta mutil asko daude. Milioika. Eta ez daude bi berdin. Norbera bere erara da neska edo mutila.

## ANTZERKIA:



### **MR. SEÑORA**

Oier Guillan Bermúdez

Gaia: Kritika sozialda. Genero eta identitateak

Ileordea edo bilordea ile sintetikozein naturalaz egindako ordeko adatsa da. Buruan jartzen da eta arrazoi estetikoengatik erabiltzen da. Gizon-emakume askok janzten dituzte ile-galera disimulatzeko". Baina, batzuetan, disimulatzeko egin beharrean, bakardadeaz, norberekeriaz, heterosexualitateaz, minaz, jelskortasunaz edota sudurreko ileez hitz egiteko janzten ditugu ileordeak eta armairutik ateratzen gara.

Umoretik, ironiatik, elkartasunetik eta probokaziorako gogotik sortuak diren zazpi antzezlan hauek pentsamendu bakarraren kontra idatzitako lanak dira, norberaren pentsamendu bakarraren kontra, batez ere.

## KONTAKIZUN LABURRAK:



### **LASAI, EZ DA EZER GERTATZEN**

Ana Malagon Zaldua


Bakardadearen mapa moduko bat da liburu hau, Iban Zalduek hitzaurrean dioenez. Frustrazioaren koordenadak erakusten dizkigu bere orrietan, insatisfazioaren eta inkomunikazioaren kartografia. 162 mikroipuin idatzi ditu egileak, inoiz orria gainditu gabe, eta neurri murriztuz horretan unibertso pertsonal bat eraiki du: hiritarra, gaurkoa, gure egunerokotasunari ironiazko begirada bat eskaintzen diona.



### **EZ NAIZ NI**

Karmele Jaio Eiguren

Zerbait falta dute, zer den ondo ez badakite ere. Gaztetasunaren azken izpiez gozatu nahi dute batzuek, lehengo garai ustez eder haiek berreskuratu; esperientzia berriak bilatuko dituzte beste batzuek, modu batean zein bestean, edo hondatzen hasitako harremanak biziberritzen saiatu. Bizitzaren erdialdean daude denak, eta horrek eragiten dien ezinegonean beren tokia aurkitu nahi lukete. Pertsonaia batek dioten bezala, zailena ez baita zahartzea, zahartzen hastea baizik. Ipuin liburu berri bat dakarkigu Karmele Jaio, hamabi istorioz osatua. Aurrekoetan bezala, giza harremanetan sortzen diren arrakaletan erreparatzen daki egileak, begirada zorrotz baina amultsuz batekin; aurrekoen aldean, baina, sakonagoak dira kontakizunak, argumentua gehiago garatuz, eta abertsagoak dira pertsonaiak, haien bizitzen hainbat alderdi eta xehetasun erakutsiz; betiko sentiberatasunez, baina baita berria den umore fin batez ere.



### JOSTORRATZA ETA HARIA

Yolanda Arrieta Malaxetxeberria

Zer gara? Berez gurekin datorrena ala bizitzan zehar egiten goazena? Bien nahastea, agian? Bi galdera horien inguruan mugitu nahi izan dut Jostorratza eta haria idazterakoan; alde batetik, jostorratzez eta hariez josten goazen historia-istorio multzoa garelako; baina, era berean, istorio-historia ....



### HEZURREN ERRETURA

Miren Agur Meabe Plaza

Herenegun umea zena, neska izan zen atzo, eta helduaro betean da orain. Oroitzapenetan —eskola-egunetan, familia giroan, jolasetan...— bilatu ditu bere nortasunaren lorratzak. Onartzen ditu denboraren joanak emandako gal-irabaziak. Badaki bereizten bizitzari zer eskatu eta zer ez. Babak eltzetik ateratzen ikasi du. Bere egin du falta direnen ausentzia. Ez du sinesten amodioaren balio absolutuan, nahiz eta azken aukera eman maite-kontuei. Ezagun zaizkio beste andre batzuen irrikak eta beldurrak. Ez du galdu ironiaren ufada. Eta bakardadeak eman dio hazten jarraitzeko azken bultzada. Aldian-aldian erretura egin beharra gertatzen zaigu, haizea zainduta, onuragarria behar lukeena kalterako izan ez dadin. Horretan dihardu hogeita bat narrazio hauetako protagonistak ere, idazketaren bidez erretzen bizitzan pilatutako hezurak: zor-hartzekoak, azertuak, akatsak, pauso legitimo nahiz ilegítimoak. Idaztea erretzea delako. Errekuntza errituala, jakina: ezein idazkuntzak ezin du bizitza erre.

## KOMIKIAK:



### TUPUST

Antologia hau osatzen duten istorio guztiak niaren inguruan gorpuzten dira; komiki guztiek hitz egiten dute, era batean ala bestean, niari buruz. Komiki hitza erabiltzen dugu bai, baina irakurleek askotariko komikiak aurkituko dituzte Tupust! antologian. Batzuk testuaren laguntza dute, beste batzuk soilik irudiak erabiliz eraiki dira. Batzuk bineta, marrazki eta testu asko dituzte orrialde bakoitzeko, beste orrialde batzuk irudi (mutu) bakarrarekin betetzen dira. Finean, nor bere nitik ari dura, gu bat osatzeko. Hamalau komiki, hogeii egile, helburu bakarra: komikigintzatik eta euskaraz, eredu tradizional heteropatriarkalaren deseraikitzea. Egitasmo honek tupust egin ez dezan irakurleari dagokio orain konplize bihurtzea, antologian barrena murgildurik.



### HABIAK

Maite Gurrutxaga Otamendi

Abiadura handiko trenaren lurretatik pasatzen dela-eta baserria galdu duen Simon zaharraren eta, Balkanetako gerra atzean utzita, Euskal Herrira heldu den Selma erizain bosniarraren arteko harremana da liburuaren ardatza.


## HAUR LITERATURA

### 12 URTETIK AURRERA



#### **MARTAREN INFERNUA** Pasqual Alapont Ramon


Mutil harekin ateratzea erabaki zuen egunean ez zekien artean hanka bat infernuan jartzen ari zenik. Psikopata eta guzti, thriller eran idatzitako eleberri honek ileak iaztuko dizkizu.



### **CARLOTAREN EGUNKARI MOREA**

Gemma Lienas Massot

Carlotaren egunkari morea ez da eleberri bat, ez eta egunkari arrunt bat ere. Carlotak "disidentzia"ren antiojuak jantzi ditu eta hankaz gora jarriko ditu eguneroko bizitzan normaltasun osoz bizi ditugun zenbait egoera eta ikuspegi. Nork asmatu du, esate baterako, maitasun kontuetan gizona koei dagokiela lehen pausoa ematea? Zergatik den arrosa nesken kolorea, eta urdina mutilena? Carlotaren egunkari morea emakumearen egoera zein den ohartzeko gida errukigabea da. Umorez askotan, amorruez eta inpotentziaz gehienetan, emakumeak bizi duen egoera salatzen du. Dena den, hori hala gerta dadin, antioju moreak jantzi beharko ditu Carlotak.



### **ARGIAREN ALABA**

Yolanda Arrieta Malaxetxeberria

Mirarik hamazazpi urte ditu, aita amerikarra eta ama euskalduna. Estatu Batuetan bizi arren, ama eta izeko Amaia jatorri euskalduna mantentzen saiatu dira, eta horregatik moldatzen da primeran euskaraz. Izeko Amaiarekin igaroko du 2013ko uda, eta Bizenta Mogel Elgezabal idazlearen bizitzara eta bizimodura hurbilduko da denboran salto eginez eta datuak fikzio bihurtuz.


## 8 URTETIK AURRERA



### ENEKOREN SOINEKO ARROSA

Anne Fine

Liburu honetako pertsonaia Eneko deitzen da eta egun batean, esnatzerakoan, bere burua neska bihurturik ikusiko du!! Soineko arrosa jantzita ikastolara joango da eta imajinatuko duzuenek denak txunditurik geratuko dira, mutil batek, normalean, ez duelako soinekorik jantzen...Zer gertatuko ote da Enekorekin?



### KATTY BETI EDREDATZEN

Antxiñe Mendizabal Aramburu

Katti eta etxeakoak bolada zaila igarotzen ari dira: bikiak jaio direnetik, etxean zalaparta batean bizi dira, aitaren lantegian arazoak dituzte, ama lan guztiei aurre egin ezinda dabil, andereñoak Katti begitan hartuta dauka eta, gainerakoan, Manexek, bere lagunik onenak, huts egin diola uste du. Kattik, halere, badaki arazoei aurre egiten; ez da erraz kikiltzen, beti bazterrak endredatzen ibiltzen dela leporatu behar badiote ere.




## OIHANA HIRIAN

Leire Bilbao Barruetabeña

Oihana aitarekin doa hirira, erosketak egitera; halako batean, ordea, zebrabidean ez aurrera ez atzera geratuko da, aitaren eskutik askatuta, eta bere burua animaliaz inguraturik ikusiko du bat-batean: hartzak, ehunzangoak, zakurrak, ahuntzak, elefanteak, ipurtargiak, jirafak, krokodiloak, gorilak... Aurkituko al du berriz aita, eta etxera itzultzeko bidea?

## 5 URTETIK AURRERA

### Urdaburutarrak




Anthony Browne

elkar

### URDABURUTARRAK

Anthony Browne

Tira, laztana, gosari hori», «Tira, ama, gosari hori», esaten zioten senarrak eta seme-alabek. Harik eta Urdaburu anderea nazkatu eta alde egin zuen arte.



## **BASAJAUN ETA MARTIN**

Yolanda Arrieta Malaxetxeberria

Basajaunek etxe berezi bat egin nahi du muino gainean baserritarrak biltzeko. Martinek, zelaian. Nola konponduko dira? Ataungo kondaira ezagun bat eguneratu dute egileek album ilustratu honetan.



## **BONOBO ETA BETAURREKODUNEN EGIAZKO HISTORIA**

Adela Turin

Orain dela urte asko eta asko, aspaldi handian, hainbat bonobo oihanean bizi ziren, mangladi batean. Egun guztia fruitu eta baiak, intxaur eta haziak, sustrai eta kimu berriak jaten ematen zuten, eta, bonobo emeak lan eta lan aritzen ziren janaria biltzen, helduentzat eta umeentzat.



## ZORIONEKO HONDAMENDIA

Adela Turin

Hondamendiak dena hankaz gora jarriko du: etxerik gabe geldituko dira, baina, gainera, bizimodua erabat aldatuko die. Sagueta andreak aurkituko du konponbidea. Bizimodu aspergarria zuten, baina, orain, abenturak, baita rol berriak ere familian.



## ARROSA ETA LEUNA

Adela Turin

Lorategi batean itxirik bizi dira elefante-kume emeak. Paskualina da haietako bat, baina, besteek ez bezala, ez du lortzen bere azala arrosa eta leuna izatea. Aitak eta amak, etsiturik, itxura hori izatera behartzen ez dutenean, Paskualina askatasuna zer den ohartuko da, eta berdintasunerako bidea ...

## Marikanta eta inurriak

Mariasun Landa

Ilustrazioak: Jokán Mitzelena



ere.in

## MARIKANTA ETA INURRIAK

Mariasun Landa Etxebeste

Marikanta txitxarrak negualdi zoragarria izango du inurritegi batean: inurriei abesten irakatsiko die, eta kanta xume baina alai bat ere asmatuko du, inurriek Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa bat irabazi dezaten. Baina inurriak, nonbait, ez dira kantagintzarako jaio?

# **GAZTELANIAZKO LIBURUAK**

## **LIBROS EN CASTELLANO**


## DESIGUALDAD – FEMINISMO



### FEMINISMO PARA PRINCIPIANTES

Nuria Varela Menéndez

Feminismo para principiantes propone un apasionante recorrido por la historia y por los temas que son objeto de su estudio. Sugiere colocarse unas gafas violetas para percibir mejor cómo se ve la vida con la mirada feminista.



### TODOS DEBERIAMOS SER FEMINISTAS

Chimamanda Ngozi Adichie


Un libro que recoge el discurso que dio la autora en su TEDx Talk sobre lo que significa ser feminista en el siglo XXI. Ser feminista no es solo cosa de mujeres. Chimamanda Ngozi Adichie lo demuestra en este elocuente y perspicaz texto, en el que nos brinda una definición singular de lo que significa ser feminista en el siglo XXI.



### **FEMINISMO PARA TORPES**

Nerea Pérez De las Heras


Partiendo de escenas cotidianas, planteadas desde el humor, y desde su propia experiencia, Nerea Pérez de las Heras analiza de manera crítica todos los aspectos relacionados con el feminismo: el patriarcado y la manera de estar en el mundo de los hombres, los hitos de la historia del feminismo, los clichés del negacionismo machista, los mensajes que la sociedad envía a las mujeres sobre cómo deben comportarse, cosas que parecen feministas pero no lo son... Todo ello desgajado en escenas cotidianas cargadas de humor que sirven como punto de partida y a la vez como toque de atención de la presencia del machismo en el día a día.



### **PEQUEÑA HISTORIA DEL FEMINISMO EN EL CONTEXTO EURO-NORTEAMERICANO**

Patu y Antje Schrupp

Filósofas, rebeldes, activistas: este libro gráfico cuenta la historia del feminismo en el contexto euro-norteamericano desde la Antigüedad hasta nuestros días. En sus páginas no sólo se abordan sus principales figuras, sino también importantes debates feministas como, por ejemplo, la igualdad de derechos, el trabajo doméstico, el amor libre, la identidad y la diferencia, o las principales corrientes en lo relativo al género, cada uno en su respectivo contexto histórico.



## COMO SER MUJER

Caitlin Moran

No hubo nunca mejor época que ésta para ser mujer: tenemos el voto y la píldora, y desde 1727 ya no nos envían a la hoguera por brujas. Pero, cómo ser mujer? Esa es precisamente la gran, eterna pregunta a la que Caitlin Moran se propone responder en una obra que aborda a calzón quitado a veces literalmente, con inteligencia, desvergüenza e ironía y también una salvaje franqueza, los principales aspectos de la condición femenina.

Premio Galaxy al mejor libro del año.

Título original: How to be a woman



## MONSTRUAS Y CENTAURAS

Marta Sanz Pastor

Tres acontecimientos más una sentencia (el #MeToo, la carta de las intelectuales francesas, la huelga feminista del 8 de marzo y la sentencia de La Manada) han marcado la agenda en los últimos meses y han puesto en el punto de mira el concepto del feminismo hoy. Marta Sanz reflexiona acerca de lo que ello supone, cómo posicionarse ante esos hechos concretos, cómo roteger la lucha feminista de la simplificación y comercialización de un capitalismo que lo puede absorber todo, y piensa también sobre las cuotas y el poder, para llegar a la conclusión de que quizás lo que deba modificarse sea la noción de poder misma... Una reflexión de una mujer que se pregunta, en sus actuaciones públicas y privadas, en cada gesto y cada palabra, cuál es el camino hacia la igualdad.


## CLÁSICOS - ENSAYOS:



### EL SEGUNDO SEXO

Simone de Beauvoir

"El segundo sexo" no sólo ha nutrido a todo el feminismo de la segunda mitad del siglo XX, sino que es el ensayo feminista más importante de esa centuria. Todo lo que se ha escrito sobre el feminismo ha tenido que contar con esta obra, bien para continuarla en sus planteamientos y seguir desarrollándolos, bien para criticarlos oponiéndose a ellos  
Título original: Le deuxième sexe.



### LA MÍSTICA DE LA FEMINIDAD

Betty Friedan

«La mística de la feminidad» es un clásico del pensamiento feminista que se publicó originalmente en Estados Unidos en 1963. Se trata sobre todo de un libro de investigación respaldado por un abundante trabajo descriptivo, y sólo como consecuencia de esto se acaba convirtiendo en un libro militante, lo que lo aproxima al otro gran clásico del siglo XX, «El segundo sexo», de Simone de Beauvoir. Friedan llama mística de la feminidad a esa imagen de lo esencialmente femenino, eso de lo que hablan y a lo que se dirigen las revistas para mujeres, la publicidad y los libros de autoayuda. Es una horma moral, fabricada en esos años, en la que se pretende, como en un lecho de Procusto, hacer vivir a todas las mujeres. Es algo inauténtico que, si se intenta llevar a cabo, produce consecuencias cada vez más graves. Comienza por un difuso malestar y termina por producir enfermedades verdaderas. Precisamente el libro comienza con un

capítulo titulado El malestar que no tiene nombre.

Estamos ante un libro extraordinariamente influyente que ha resultado ser decisivo en el acompañamiento de uno de los cambios sociales más determinantes del siglo xx: la posición y autoconciencia de las mujeres como grupo.




## MUJERES RAZA Y CLASE

Angela Davis

Libro clásico editado originalmente en 1981. El presente libro trata de desvelar las causas que llevaron a que las reivindicaciones de las mujeres negras fueran sistemáticamente invisibilizadas a pesar del potencial revolucionario que encerraba un movimiento semejante. En sus distintos capítulos, Angela Y. Davis ofrece un análisis riguroso y esclarecedor que no sólo pone de manifiesto las estrategias de lucha de las mujeres negras, sino los problemas de composición de las diferencias que siguen desgarrando los movimientos políticos actuales.


Título original: Women, race & class.



### UNA HABITACION PROPIA

Virginia Woolf

En 1928 a Virginia Woolf le propusieron dar una serie de charlas sobre el tema de la mujer y la novela. Lejos de cualquier dogmatismo o presunción, planteó la cuestión desde un punto de vista realista, valiente y muy particular. Una pregunta: ¿qué necesitan las mujeres para escribir buenas novelas? Una sola respuesta: independencia económica y personal, es decir, Una habitación propia. Sólo hacía nueve años que se le había concedido el voto a la mujer y aún quedaba mucho camino por recorrer. Son muchos los repliegues psicológicos y sociales implicados en este ensayo de tan inteligente exposición; fascinantes los matices históricos que hacen que el tema de la condición femenina y la enajenación de la mujer en la sociedad no haya perdido ni un ápice de actualidad. Partiendo de un tratamiento directo y empleando un lenguaje afilado, irónico e incisivo, Virginia Woolf narra una parábola cautivadora para ilustrar sus opiniones. Un relato de lectura apasionante, la contribución de una exquisita narradora al siempre polémico asunto del feminismo desde una perspectiva inevitablemente literaria.



### LA DOMINACION MASCULINA

Pierre Bourdieu

